




Vitoria-Gasteizen, 2014ko abuztuaren 11an

DAGOENKO BOST IZAPIDETIK BI EGIN DAITEZKE OSORIK INTERNET BIDEZ

- Euskal administrazio eta enpresa publikoekiko prozedura eta izapide guztien % 39,4 osorik egin daitezke dagoeneko Internet bidez
- Araban eta Bizkaian Gipuzkoan halako hiru eta bi, hurrenez hurren, ugaritu badira ere, Gipuzkoak jarraitzen du garapen elektronikoaren euskal rankinean buru
- Zergei eta tasei buruzko izapideen bi heren Internet bidez kudeatu eta ordaindu daitezke dagoeneko

2013ko Garapen Elektronikoko Indizea Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailak sortu eta kudeatutako estatistika da, eta, euskal administrazio eta enpresa publikoetako laginak aztertuta, administrazio elektronikoaren bilakaera eta ezaugarri nagusiak neurtzen ditu, eskaintzari dagokionez.

G.1. Interneten bidez erabat egin daitezkeen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta sektore publikoaren prozedura eta izapideak, erakunde-motaren arabera. 2010-2013. (*). %



Euskal sektore publikoak eskaintzen dituen izapide eta prozeduren erdiak baino gehiago –% 58,7 hain zuzen– udalei dagozkie, % 15,6 foru-aldundiei, % 13 Eusko Jaurlaritzari eta gainerako % 12,7, azkenik, bestelako erakunde publikoei, hala nola Unibertsitate, erakunde autonomo eta elkarte publikoei.

2012tik 2013ra bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Garapen Elektronikoko Indizeak 4,3 portzentaje-puntu egin zuen gora, eta osorik online egin daitezkeen izapide administratiboak dagoeneko % 39,4 dira.

Alegia, bost izapidetatik bi osorik egin daitezke dagoeneko Internet bidez; ia beste hainbestek (% 37,1) aukera ematen dute bete beharreko formularioak deskargatzeko eta, zenbaitetan, betetzeko eta beteta bidaltzeko ere. Gainerako % 23,6n informazioa eskaintzen da.

EUSKO JAURLARITZA BURUAN

Eusko Jaurlaritza eta erakunde autonomoak izan ziren erakunde dinamikoenak 2012 eta 2013 bitartean administrazio elektronikoari dagokionez.

Erakunde-motari erreparatuta, Eusko Jaurlaritzak eta erakunde autonomoek izan zuten aurrerakada handiena 2012-2013 aldian administrazio elektronikoaren alorrean: lehenak 7,3 puntu egin zuen gora indizean, eta bigarrenak, berriz, 7,2 puntu.

Elkarte publikoek 5,8 puntu egin zuten gora, udalek 4,5 puntu eta Unibertsitate Publikoa eta foru-aldundiak hazi ziren gutxiena: 2,1 eta 2,3, hurrenez hurren.

LURRALDEKA

Araban handitu zen gehiena garapen-indizea azken urtean, ordura arte enpresei eta herritarrei zerbitzu administratibo elektronikoak eskaintzen atzeratuena ibiliagatik ere, Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren ahaleginari esker.

Lurraldeka, Gipuzkoako administrazio publikoek aukera ematen dute beren izapide administratiboan % 43,4 osorik Internet bidez egiteko. Bizkaia eta Araba atzetik datoz, izapideen % 37,6 eta % 25,3 eskainita, hurrenez hurren. 2012-2013 aldiko gorakadaren arabera sailekaren eta garapen-indizearen arabera alderantzizkoak dira, administrazioen lurraldeei dagokienez. Hala, Arabak 6,9 puntu egin du gora, Bizkaiak 5,2 puntu eta Gipuzkoak 2,4 puntu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak besteek halako bikoa du bere garapen-indizea 2013an, eskaintzen dituen izapide eta prozeduren % 63,1 egin baitaitezke osorik online; haatik 8,6 puntuko atzerakada pairatu zuen 2012arekiko. Arabako Foru Aldundiaren kasuan indizearen balioa % 34,2 izan zen, eta Bizkaikoaren kasuan, azkenik, % 33,6. Arabako Aldundiak izan zuen gorakada handiena, 10,8 puntu, eta horri esker hartu dio aurrea Bizkaikoari, zeina 3,7 puntu egin baitu gora.

UDALAK

Hiriburuen artean Bilboko Udala dago oraindik buruan digitalizazio-mailari dagokionez, azken urtean Donostiakoa eta Gasteizkoa hura baino gehiago haziagatik ere.

Hiru lurraldeetako hiriburuei dagokienez, Donostiakoa handitu da gehiena azken urtean, 13,8 puntu egin baitu gora eta garapen-indizean % 48,7ra iritsi baita. Gasteizkoak ere egin du gora (11,4 puntu, % 33,5eraino) eta nabarmen lagundu du Arabako balioak igotzen. Bilboko Udalak, azkenik, 2010 eta 2013 bitartean gehiena

haziagatik ere, 3,2 puntu egin du behera; haatik, buruan jarraitzen du % 50,7ko indizeari esker.

MOTAK

Zerga eta tasei lotutako izapideek erakarri dute gehien administrazioen ahalegina, hainbat zerbitzu eskatzekoekin batera, erraztasunak emateko orduan.

Zerga eta tasei lotutako hiru izapidetik bi (% 66,4) osorik kudeatu daitezke elektronikoki, Internet bidez, 2012. urtean baino 5,8 puntu gehiago. Horien atzetik zerbitzuak eskatzeko izapideak datoz 2013an, % 61 hain zuzen ere, aurreko urtean baino 3,2 puntu gehiago. Zehapenekin loturikoen artean % 58,7 egin daitezke horrela, aurreko urtean baino 3,2 puntu gutxiago.

Baimenak eta txartelak eskuratzeko prozedurei dagokienez ugaritu dira gehiena aldi horretan, 8 puntu, hain zuzen ere, eta haien indizea % 26,6ra iritsi da. Ziurtagiriak eta bisatuak ere batez besteko balioaren gainetik daude, 5,8 puntu handituta eta % 41,3ra iritsita.

Azken urtean erregistro-kontuetan ahalegin handiagoa egin du Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzei lotutako izapideetan baino: 17,6 eta 8 puntu egin du horietan gora, hurrenez hurren.

Foru-aldundien kasuan, berriz, horiek ere zerga- eta tasa-kontuetan ahalegindu dira batik bat (5,1 puntu gora); udalek, aldiz, erreklamazio eta salaketen alorrean (9,2 puntu gora), ziurtapen eta bisatuetan (9,1 puntu gora) eta baimen eta txarteletan (8,1 puntu gora) saiatu dira bereziki alor hau garatzen.

METODOLOGIARI BURUZKO OHARRA: Ikerketa 3.385 prozedura eta izapidez osatutako lagin aleatorio batean oinarrituta egin da, Zerbitzu eta Prozedura Publiko Elektronikoen 2012ko katalogotik atereak. Horietako 1.804 2012-2013 aldiko bilakaera estimatzeko erabili dira. Indizearen oinarri-urtea 2010 izan da; harrezkero ez da alta berririk izan, bai ordea bajak. Euskadiko Autonomia Erkidegoan egoitza daukaten Estatuko Administrazio Orokorreko entitate publikoak ez dira aintzat hartu.

Informazio gehiagorako: [Garapen Elektronikoko 2013ko Indizearen taula eta txostenetarako sarbidea](#)